



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZIERBENAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2021

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 30ean Zierbenako Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du, nahiz Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina 142 mila euroan murriztuko luketen kontabilitateko doikuntzak azaleratu diren; ezin zehaztu izan da Aktibo ez-korrontearen saldoek Udalaren ondasun eta eskubideen egoera erreala islatzen duten abenduaren 31n; Kontu Orokorraren Memoriak ez du EIOZen likidazio baten gaineko errekurtsio baten eta ikuskaritzako akta baten ondoriozko kontingentzien berri ematen; eta Zierbena Portua SAK ez zuen erregistratu hiru ondasunen doako lagapena.

Finantza-egoerari dagokionez, txostenak dio zerga-sarrereren igoerak eragiketa korronteen egitura hobetu duela, eta Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina handitu dela.

Aurrekontuaren egonkortasun helburuak direla eta, 2020an bertan behera utzi ziren toki entitateen arau fiskalak, nahiz erreferentziazko tasa batzuk ezarri ziren. Txostenak dio Udalak bete dituela erreferentziazko tasa horiek.

Txostenak ondorioztatu du **zuzentasunez bete duela** 2021ean ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen **lege-araudia**, baina akats puntualak azaleratu dira **Kontratazioaren** atalean, izan ere bi kontratu gauzatu dira mugaeguneratuta eta luzatzeko aukerarik gabe egon arren; eta zuzenean kontratatu dira hornidura 1 eta zerbitzu 1, dagokion esleipen-prozedura izapidetu gabe.